

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

NARRATIVA EUSKERA 17-18 AÑOS
TERCER PREMIO

Nire egunerokoa Maia Campion Lezaun

2010eko martxoak 4:

Nire amak 24 ordu daramatza ospitalean. Duela 26 ordu gutxi gorabehera urak bota zituen eta nire aitarekin ospitalera korrika joan behar izan zuen. Orain nire aiton-amonen etxean nago, dena ongi doala dirudi.

2010eko martxoak 5:

Gaur oso egun berezia izan da. Sentimendu asko bueltaka egon dira nire familiaren iguruan. Gaueko hiruetan aitak aiton-amonen etxera deitu du; ama erditzen hasia da. Nire aiton-amonak ni esnatu eta ospitalera korrika eraman naute.

Ordu bat edo egon gara itxarongelan. Orduan medikua etorri eta “Anaren familia?” galdetu du, betilun eta burumakur. Leher eginda egongo da. Orduan, nire aita atera da, negarrez, eta honako hau esan du:

—Ez genuen hau gertatzerik espero, ez du ezta mediku batek ere ikusi! Bizitza hau bidegabea da!

—Baino zer gertatu da? Norbaitek zerbait azaltzea! —esan du nire amonak, nahasia.

—Gure alaba Downen sindromearekin jaio egin da.

Denak negarrez hasi dira. Nik ez dut ulertzen zergatik dagoen hain tristura handia, bakarrik nire ahizpatxoak ezagutu nahi dut. Berdin dit kromosoma bat gehiago edo gutxiago izatea, nik nire ahizpa ezagutu nahi dut!

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

Orduan nire ama eta nire ahizpa dauden gelara sartu naiz. Nire amari besarkada bat eman eta nire ahizpatxoari muxu gozo bat eman diot.

Hemen nire bizitza osoa aldatu zen, 360 graduko bira eman zuen.

2010eko martxoak 20:

Aste batzuk pasa dira, nire familiak oraindik ez du egoera berria asimilatu. Asko maite dute, bai, baino denak burumakur daude. Ni ez. Ni oso pozik nago. 12 urte pasa ditut alaba bakarra izaten, orain, nire ahizpatxoa jaio berri denean ez naiz triste egongo.

2010eko apirilak 26:

Hilabete eta aste batzuk pasa dira nire bizitza osoa aldatu zenetik. Nire familiako kideak alaiago daude eta horregatik hobe sentitzen naiz. Etxea orain lasaiago dago. Bisitak denbora guzti honetan bata bestearen atzetik etorri dira. Denak pozik datoz gure etxera, baino betilun ateratzen dira. Tristura aurpegiarekin begiratzen gaituzte eta behin eta berriz “Animo” hitza errepikatzen dute. Nik ez ditut ulertzen. Espero dut bisita hauek laister bukatzea. Oso aspergarria da.

2010eko irailak 25:

Hasiak gara nire ahizparekin, Enararekin, mediku ezberdinetara joaten. Tratamendu berria hasi da; hitz egiten hasten denean ez trabatzeko, ikusmena ongi izateko eta horrelako gauzetan arazorik ez izateko.

Nire familia diru asko uzten ari da medikuetan, etab. Ondorioz, nire kapritxoak murriztu egin dira (bukatu egin direla esan ez arren). Nire aitak beharrezko gauzak direla esan dit, eta nik ulertu dut. Baina batzuetan ez zait buruan sartzen nola ez gaituzten “goikoek” (horrela deitzen dituzte nire gurasoek) laguntzen.

Ongi ulertu badut, “goikoek” dirudunei laguntzen diete. Berriz, dirua soberan ez

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

dugunoi eta arazoak ditugunoi ez digute inolako laguntzarik ematen. Honek zentzurik ez daukala dirudi, ezta?

2012eko martxoak 5:

Gaur nire ahizpak bi urte bete ditu. Atzo gauean tarta bat egin genuen, eta dirudienez, begiak ireki zituen moduaren arabera, izugarri gustatu zitzaion (gutxienez itxura). Ibiltzen hasia da, motel-motel badoa, baina pauso txiki guztiak harentzat pauso handiak dira. Beretzat badira, niretzat askoz gehiago. Oso harro nago bera nire ahizpa izateaz.

2021eko apirilak 10:

Duela ia hamar urte ez dudala hemen idazten, baina gaur hau nire gauzen artean bilatu eta aurkitu dudanean, beharrezkoa iruditu zait.

Begietan malkorik gabe idazten dut, ez baitzait bakar bat ere gelditzen. Bi aste pasa dira nire bizitzako egunik okerrena izan zena igaro zenetik.

Inoiz ez nuen espero horrelako gauza bat gertatuko zenik. Banekien gauzak gaizki zeudela. Banekien lagunik ez zuela, lotsagatik hau ezkutatu nahi zuen arren. Irakasleekin hitz egin genuen eta inork ez zuen ez konponbiderik ez laguntzarik eman. Bakarrik “umeen gauzak dira” eta “laster helduko dira eta hau joko batean geldituko da” esaten ziguten. Lotsagabeak.

Ezin dut ulertu nola izan daitekeen gizakia hain krudela. Hainbeste sufrimendu eragitea beste pertsona bati beharrezkoa al da? Benetan? Puntu horretaraino ailegatzera arte? Seguru nago ikaskideetako inork ez zuela pentsatu Enara nola sentitzen zen, zer beldur

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

zuen klasera joaten zen bakoitzean, zer nolako ametsak zituen, negarrez esnatzen zen eta. Haien ekintzen emaitza ikustean nola erreakzionatu zuten ikusi nahi nuke.

Beste alde batetik, ni errudun sentitzen naiz. Haren ahizpa nagusia naiz, eta bera babestu beharko nukeen. Ez zuen hori merezi. Inork ez du merezi, baina bereziki berak ez. Nire errua da hura gertatzea utzi izana. Nire errua da irakasleei gehiago ez insistitzea. Nire errua da egoeraren berri izanda klasera uzten joatea. Nirea da erru guztia.

Eta institututik zu, Enara, joan ez zinela informatzeko deitu zigutenean izugarri ikaratu nintzen. Arnasa oso azkar hartzen hasi nintzen. Gurasoak deitu nituen, lanean zeudela, eta haiek poliziar deitu zioten. Ordu erdi bat pasa ondoren atea entzun eta korrika joan nintzen. Bi polizia burumakur aurkitu nituen. Nire bihotza hain azkar zihoan non mina egiten zidan. Tripako mina nuen. Nire barruan banekien. Benakien zu ez zeundela jada gure artean. Lurrera negar zotinka erori nintzen. Momentu hartatik aurrera, ez dira malkoak nire begietatik joan.

Ez zenuen hau merezi, Enara.

Beti nirekin egongo zara.

Maite zaitut.